

Bergarako astekaria

# Berrigara



## San Joan Uda bete-betean

AB Asesoresek zuretzat aukeratu ditu...

munduko inbertsio-fondorik onenak... fondo bakar batean

**AB Fondos RV FIM**

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta informatuko zaitugu.

Gubrieneko inbertsioa: 100.000 PT4

AB ASESORES



Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz 6  
S.Lorentzo industrialdea  
Tf. 943 76 54 35  
20570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara  
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate  
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea  
babesteko gaudu*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**


**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**



**902 202 502**

# MARKIEGI autoak



Leizeaga 1 (San Lorenzo Industri Poligonoa)  
20570 BERGARA (Gipuzkoa) Telefonoa: 943 76 35 09





# Errege eta Jaungoikoa

Iñigo Urrutia / Kazetaria

Ogia eta futbola. Zehatz eta mehatz honela laburbildu dezakegu asteotan telebistaz jasaten ari garen kirol eraso. Askori demasa iruditzen zaiguna aberria eta kirolaren arteko lotura sinbolikoa da. Gehiegikeria hutsa, baina denborak horrela datoz, eta begira ezazue bestela zer nolako atzerapausua ematen ari diren Europar Batasunaren arkitektoak.

Maastricht gauzatzera doanean, Alemania, Frantzia eta Britainia Handiko buruzagiek aldarrikatzen dute Europako eraikuntza oso ondo dagoela, baina horrek ez dituela hautsi behar estatua nazionalak.

Frantziako Mundialak aberrikeria ugari piztu ditu badirudi jendeari interesatzen zaion gauza bakarra -egia esan, hiritarrei ez zaie besterik eskaintzen- bere selekzioaren egoera eta etorkizuna dela. Aberriaren ohorea kirol lehiari dago jokoan. Clementeren aurka izpiritu nazionalaren izenean esan diren gauza inklemente guztiak pentsamolde irrazionala erakusten dute. Denak prest aberri zaurituaren ohorea garbitzeko. Haritz eroriari, orok egurra.

Bestearen mesprezua argiro azaldu du, adibidez, Aznar presidenteak espainolen "etsai" porrokatuak aipatzean: "paraguaitar batzuk, nigeriar batzuk...", azpimailako pertsonak izango bailiran.

Azken finean zertaz ari gara zurrubilo nazkagarri honekin. Futbola kirol eta espektakulu bezala ikusten dugunok, ez dugu izan aukera haundirik partiduekin gozatzeko. Erdilarien joko desagertzeko zorian ote dagoen ere pentsatu dugu. Irakurketa politikoa eginez gero, zer motatako harremana daukate, adibidez, Brasileko jokalariek herriaren egoerarekin? Agian, jokalaria batzuk, "Meninhos da rua" izan dira. Ukaezina. Baina bi aldiz pentsatzeke, aberria utzi eta europar dolarrak poltsikoratu dituzte. Elastiko horia jantzi

*"Futbola herriaren opioa izan daiteke, batik-bat gizaldiaren amaieran joera erlijiosoak ispilu askotan islatzen direnean: ekologia, kirola..."*

eta aberriaren ordezkari bihurtzen dira. Ustezkoak. Sinbolikoki bakarrik.

Futbola herriaren opioa izan daiteke, nola ez, batik-bat gizaldiaren amaieran joera erlijiosoak ispilu askotan islatzen direnean: kirola, gorputza, ekologia. Fundamentalismo berriak jogan zen mendean Jaungoikoaren hiletak utzi zuen hutsunea betetzeko. Halaber, futbolak ere eragin ditzake aldaketa politikoak, hala nola Iranen sortarazi duen lurrikaraxoa Estatu Batuei irabazi ostean. Kasu konkretu honetan, erregimenaren oposizioak ondotox jakin izan du nola bideratu politikoki selekzioaren garaipena, nahiz eta esparru honetan emaitza ikustear egon.

Filosofo ospetsu eta susmagarri bategen aldarrikatu zuen orain dela 60 bat urte, Jaungoiko batek baino ez gintuela salbatuko. Gauzak dauden bezala ikusirik, Jaungoikoaren ordez, futbola jarri dute. Testuinguru hau dela eta, Heidegger-ek esandakoaren truke nahiago dut, musutruk, Raul Zafaroni irakasle argentinarrak komentatu zidana: "kastrofeak bakarrik salbatu gaitu". Noski, ez ziharduen futbolaz hitz egiten. B

barruan



## Jabier Gantxegi

Fagor-eko presidenteordea

*"Sinatutako hitzarmenarekin, Fagor-en euskara bultzatzeko itxaropena daukagu"*

8. orrialdean.



## Agustin Aranzabal

Futbolaria

*"Mundialean jolasteko aukerarik ez izan arren, Clementerekin asko ikasi dut"*

21. orrialdean.



## Luis Markiegi

Langilea

*"Kuban juergarako aukera dago eta bertako emakumeak oso alaiak dira"*

29. orrialdean.

# orain dela...

## BERGARAN GERTATUA

**1966.** Ekainaren 26an inauguratu zen Oxirondo elkarte Zubietan, Izarra izeneko hermandadeko kide zirenen inizatibaz. Bertatik irten zen 70ean Alkartu-nai sortzeko ideia eta bertako kideak pilotazale haundiak izan direnez, hainbat pilota jaialdi antolatu izan dituzte zenbait ekimenetarako dirua lortzeko.

## EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1835.** Ekainaren 23an Tomas Zumalakarregi hil zen Zegaman.

**1872.** Ekainaren 24an tren a Tolosaraino heldu zen Donostiatik.

**1937.** Ekainaren 25ean Lauaxeta poeta fusilatuta zuten Gasteizen.

## MUNDUAN GERTATUA

**1571.** Ekainaren 24an Manila hiria fundatu zuen Miguel Lopez de Legazpik.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitzita 19

1-6-7-12-23-36 (osag.19/er.0)

#### Astelehena 22

4-5-15-17-34-35 (osag.25/er.4)

#### Martitzena 23

5-8-17-25-32-41 (osag.47/er.5)

#### Eguaztana 24

2-4-8-16-27-29 (osag.22/er.6)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 20

1-4-16-25-28-41 (osag.24/er.1)

#### Domeka 21 Gordo

13-19-23-26-31-33 (osag.46/er.1)

### ONCE

**Eguakitzita 19:** 58.279 (K. seriea: 103)


**Astelehena 22:** 32.858

**Martitzena 23:** 46.296

**Eguaztana 24:** 28.738

## Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Eguakitzean zerua estalita izango badugu ere, zapatuan ostarteak zabaltzen joango dira. Domekan, urdinguneak nagusituko dira eta tenperaturak zertxobait gora egingo du. Haize aldakorra izango dugu, baina iparra nagusituko da.

## Ilargiaren aldiak



Ilberri: ekainak 24



Ilgora: uztailak 1



Ilbete: uztailak 9



Ilbehera: uztailak 16

## Eguzkia

Domeka, ekainak 28



Sortu: 05:49



Gorde: 20:51

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Eguena 18	34	8	-
Eguakitzita 19	36	11	-
Zapatua 20	38	15	-
Domeka 21	27	14	-
Astelehena 22	23	16	-
Martitzena 23	25	11	-
Eguaztana 24	25	12	1,8

# bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

## Afoiñu

Hezetan haundiko zenbait egunetan egon ohi den behelaino antzekoa, behelainora heltzen ez dena.

- Gaur onezkero eztu jasoko.  
Euririk ezta eingo baiña afoiñuak segiduko dau illuntzerarte.

Kristalean kondentsatzen den lurrina hozbero kontrastea denean. *Lauso, lurrin eta laino* ere esaten zaio.  
- *Afoiñua eitten da kotxe barruan neguan.*



# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Lo hartzeko goxokiak

Galesko Newport hiriko Royal Gwent Hospitalean diharduen Mark Allman botikariak umeei txupete bereziak ematen dizkie. Morfinaren antzekoa den fentalina dute goxokiek eta anestesia gisa erabiltzen ditu ebakuntza egin beharreko umeein, ebakuntza aurreko estresa saihestu ahal izateko. Goxoki bakoitzak duen dosia zehatz kalkulatu egoten da umearen pisuaren arabera.

## Farmaziak

### Eguakitzita 26:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05  
GAUEZ. CORCUERA, Arrasate. 943 79 22 28

### Zapatua 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63  
GAUEZ. IRIZAR, Arrasate. 943 79 12 39

### Domeka 28:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63  
GAUEZ. AMEZUA, Arrasate. 943 79 09 74

### Astelehena 29:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15  
GAUEZ. ZABALA, Arrasate. 943 77 16 30

### Martitzena 30:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74  
GAUEZ. RUIZ, Arrasate. 943 79 14 09

### Eguaztana 1:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

### Eguena 2:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

## Ogia

Domeka 28: Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	000
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 58
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 52
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 63
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 81
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 25 85

# zorian agurrak



**Izaskun Fernandez**  
Ekainaren 19an  
4 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Unai Agirre**  
Ekainaren 20an  
8 urte. Zorionak!  
Gurasoak, Ion eta  
Nerearen etxekoak.



**Lierni Azeitia**  
Ekainaren 28an  
3 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Kimu Arruti**  
Ekainaren 26an  
16 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Itsaso Alberdi**  
Uztailaren 1ean  
6 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta  
Ainhoa.



**Iñigo Arando**  
Uztailaren 1ean  
26 urte. Zorionak!  
Gurasoak.



**Olga Balzategi**  
Ekainaren 11an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Etxekoak eta Ana.



**Fernando Asula**  
Ekainaren 19an  
30 urte. Zorionak!  
Peñakoak.



**Roberto Izagirre**  
Ekainaren 22an  
37 urte. Zorionak!  
Auskalo nor.



**Juan Alonso**  
Ekainaren 24an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Lagunak  
eta niobixua.



**Miren Arroyo**  
Uztailaren 2an  
9 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Nahia Cotillas**  
Ekainaren 28an  
6 urte. Zorionak!  
Familiakok eta  
lagunak.



**Eduardo de Goñi**  
Ekainaren 18an  
33 urte. Zorionak!  
Lagunak.



**Joseba Moñux**  
Ekainaren 17an  
32 urte. Zorionak!  
Nobixia eta  
lagunak.



**Mixelen Zezeaga**  
Ekainaren 24an  
4 urte. Zorionak!  
Mikel, Andoni eta  
lulen.



**Ane Miren Zabala**  
Ekainaren 27an  
17 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Iosu Herran**  
Uztailaren 5ean  
3 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Xabier Berasategi**  
Ekainaren 25an  
6 urte. Zorionak!  
Osaba Luis eta  
etxekoak.



**Jone Rodriguez**  
Ekainaren 14an  
8 urte. Zorionak!  
Etxekoak eta Eneko  
eta Unai.



**Ane Egino**  
Ekainaren 4an  
9 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Maialen Perez**  
Ekainaren 21ean  
4 urte. Zorionak!  
Bergarako  
familiakoak.



**Jabi Lucena**  
Ekainaren 25ean  
13 urte. Zorionak!  
Bergarako  
familiakoak.



**Enara Garcia**  
Ekainaren 19an  
14 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.




**Jone Barrutia**  
Ekainaren 26an  
13 urte. Zorionak!  
Etxekoak.




**Eider Carrasco**  
Ekainaren 21ean  
9 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Sara Gonzalez**  
Ekainaren 21ean  
urtebetete. Zorionak!  
Familiakoak.



**Omer Garcia**  
Ekainaren 21ean  
4 urte. Zorionak!  
Familiakoak.




**Mairi Rios**  
Ekainaren 17an  
16 urte. Zorionak!  
Gelakoak, bereziki  
mutilak.



**Asier Vicente**  
Ekainaren 19an  
10 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Alatz Lazpita**  
Ekainaren 17an  
2 urte. Zorionak!  
Lehengusu Josu eta  
etxekoak.



**Ibon Berraondo**  
Ekainaren 23an  
9 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Ion Sarasketa**  
Ekainaren 23an  
5 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Xabier Uribesalgo**  
Ekainaren 7an  
20 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.



**Jon Igartua**  
Ekainaren 16an  
12 urte. Zorionak!  
Etxekoak, lehen-  
gusuak eta lagunak.



**Maialen Perez**  
Ekainaren 21ean  
4 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta anaia  
Andere.



**Maite Agirre**  
Ekainaren 22an  
11 urte. Zorionak!  
Etxekoak.




**Jesus Soto**  
Ekainaren 23an  
55 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Florita Txintxurreta,**  
(Txintxuren izeba)  
Ekainaren 22an urte-  
betetzea. Zorionak!




**Ariane Martinez**  
Ekainaren 21ean  
11 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta anaia.



**Anara Tola**  
Ekainaren 19an  
18 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.



**Yasmina Moreno**  
Ekainaren 21ean  
8 urte. Zorionak!  
Gurasoak, Olatz  
eta Shere.



**Aitziber Barrene-  
txea-Arando**  
Ekainaren 14an  
14 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.

## hildakoak

**Jose Inza Goenetxea**  
Ekainak 23, 50 urte.

## mezak

**Santa Marina**  
Domekak:  
11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:00.  
**San Pedro**  
Domekak:  
09:30, 12:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 19:00.  
**Osintxu**  
Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.  
**Elosu**  
Domekak: 10:00.  
**Ubera**  
Domekak: 10:30.  
**San Juan**  
Domekak: 11:00.  
**Basalgo**  
Domekak: 13:00.  
**San Prudentzio**  
Domekak: 10:30.  
**Labegarieta**  
Domekak: 11:00.

**San Lorentzo**  
Zapatuak: 20:00.  
**Angiozar**  
Domekak: 10:30.  
Eguakitza: 19:00.  
**Monja Zaharrak**  
Domekak: 19:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 20:00.  
**Mizpirualde**  
Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 11:45.  
**Mariaren**  
**Lagundia**  
Domekak: 10:00.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 09:00.  
**Antzuola**  
Domekak:  
09:00, 11:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 19:30.  
**Uzarraga**  
Domeka: 10:00.

## URTE-MEZAK

**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.  
**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

## ANTZERKIA

► **“Como canta una ciudad de noviembre a noviembre”**, Juan Echanoverekin. Gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan

## MUSIKA

► Jam. **Undrop** gaur, eguakitza, 23:00etan.

► **Doctor Deseo, La Polla, Kaos Etiliko eta Zei** taldeak Eskoriatzan bihar, zapatua, 22:30etan.

► **Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, 12:30etan Espolioan.

► **Elgetako Parrokian** kontzertua bihar, zapatua, 20:30etan. Elgetako abesbatza, Koro Saenz organojolea eta Isabel Martinez flautajolea, Joaquin Gastesiren zuzendaritzapean.

## ERAKUSKETAK

► **Kirol Argazkien VIII. Lehiaketako argazki onenak** Kultur Etxean.

► **Josean San Torcuatoren** plumila erakusketa Nahikari tabernan.

► **Dorleta Biainen** margoak Donostiako Amara auzoko (Podavines, 4) Kimboa tabernan, martitzenera arte.

### KONTZERTUA

## Bergarako Orfeoia

**Noiz: zapatuan, 22:00etan**  
**Non: Udal Pilotalekuan**  
**Sarrerak: 1.000 PTA.**

Azker urteotako ohiturari jarraituz, Orfeoia, San Pedro bezperan, ikasturte amaierako kontzertua eskainiko du zapatuan Udal Pilotalekuan. Biharkoa kontzertu berezia izango da: garai batean orkestra sinfoniko eta guzti antolatzen ziren kontzertuen ideia berreskuratuz, Orfeoia Aita Donostia Kamara Orkestra eta hainbat bakarlariren laguntza izango du. Juan Jose Menak zuzentzen duen Aita Donostia hari instrumentuen orkestra 17 musikari gaztek osatzen dute. 1996an taldea sortu zenetik, Aita Donostia Orkestak oso kritika onak jaso ditu. Bakarlariei dagokienez, berriz, Maria Jesus Ugalde soprano bergararra, Yolanda Sagarzazu mezzosopranoa, David Azurza altoa, Pedro Ormazabal tenorea, Jagoba Fadrique baxoa eta Gerardo Rifon organujolea arituko dira.



Orfeoia Aita Donostia Kamara Orkestra eta hainbat bakarlariren laguntzaz abestuko du.

Kontzertuari hasiera emateko, Aita Donostia Orkestak Respighi-ren “Antiche danze ed arie (3. suitea)” eskainiko du. Ondoren, Orfeoia eta Orkestak, bakarlariren laguntzaz, honako piezak interpretatuko dituzte: “Pueri Concinite” (Herbeck), “Motete a la Stma. Virgen: surge propera” (Gorriti) eta, azkenik, Javier Bello Porturen “Ave Maria”. Kontzertuari amaiera emateko, Orfeoia, Orkestak eta bakarlariek (85 bat lagun guztira), Juan Jose Menaren zuzendaritzapean, hamar zatitan banatutako Camile Saint-Saëns konpositore erromantikoaren “Oratorio de Noël” izenburuko lana eskainiko dute. Gehienak kanta erlijiosoak izan arren, erraz entzuteko obra alaiak dira Orfeoia biharko prestatutakoak.

Kontzertuak ordu eta laurden inguruko iraupena izango du. Sarrerak Ariznoa eta Usoa tabernetan, Larrañaga gozotegian, Kultur Etxean, Deba Garaia inmobiliarian eta Frontoiko takilan salgai. B

## IKASTAROAK

► **Islada** bideo tailerrak antolatuta, Mixel Gaztanbidek (“Vacac”) gidolaritza ikastaroa eman du uztailaren 8tik 20ra bitartean, egunero 9:30etatik

13:30etara. Matrikula, 15.000 PTA. Plaza mugatuak. Argibideak Errotalde Jauregian. 943 77 91 58.

## LEHIAKETAK

► **Mariaren Lagundia**

eskolaren sorreraren 200. urtemugako ospakizunak iragartzeko logotipo lehiaketa, Antzuolan, Elgetan edo Bergaran jaio, bizi edota lan egiten dutenei zuzenduta. Lanak uztailaren 6a baino lehen Mariaren Lagundia Ikastolan jasoko

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atek, manparak...



Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

### LONBIDE ONETAKOAK

Bidekuruzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



### Garnish Bitxitegia

% 20, 30, 40 deskontuak

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

dira. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibideak 943 76 25 40 zenbakian.

► **Logotipo lehiaketa**, Zaldibarko Udalak eta herriko elkarteek ume eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko izenpetu duten "Bolo-bolo dabil" hitzarmena dela eta. Lanak Zaldibarko Udalera bidali beharko dira uztailaren 15eko 15:00ak baino lehen. Saria: 50.000 pezeta. Argibideak 94 682 70 16 zenbakian.

## DEIAK

► **Jubilatuentzako bidaiak** Lisboako "Expo" a bisitatzeraz. Irailaren 27ra bitartean hainbat txanda izango dira. Irteerak (abioiez) domeketan izango dira eta itzulerak egue-netan. Izen-ematea eta argibideak Marsans bidai agentzian, 943 45 65 93 eta 943 42 38 38 telefonoetan.

► **Jubilatuei zuzendutako egonaldiak** bainuetxe-etan edo Mediterraneoan urrian eta azaroan. Izen-ematea eta argibideak Jubilatuetan edo 900 43 43 43 zenbakian.

► **AEK-ko irakasle izateko** glotodidaktika ikastaroa uztailan. Era berean, uztailan zehar EGA ikastaroa ere izango da. Bietarako argibideak eta izen-ematea

943 76 05 18 telefonora deituz.

► **Justo Garate Arriola beka**. 1998ko deialdian soziologiako gaietara zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz egingo da. Argibideak 943 77 91 58 zenbakian.

► **Udal Euskaltegiaren** udako ikastaroa, uztailaren 1etik 15era Zeraingo barne-tegian. 943 76 44 53.

► **Antzuola Herria ikerketa beka**. Gaia: Larrugintza. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30era arte.

► **I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka** idazle berrientzat. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira. Argibideak: 943 88 90 94.

## KINTADAK

► **1953an** jaiotakoen afaria uztailaren 4an, Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezeta-ko aurrerapena) Antxonin.

## JAIK

► **San Martzial** eguna martitzenean, hilak 30. Santa Marinatik San Martzialera igoera 7:30etan, ondoren meza eta jarraian txokolate jana. Goizeko 11:30etan salda eta ardoa, jubilatuentzat.

# Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**Heredaras la tierra**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**ARRASATE. Alai zinema**  
**Medidas desesperadas**  
Eguakitza: 22:00.

#### Ellas

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Kundun

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### A la luz del fuego

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### El astronauta

Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

#### OÑATI. Santana

##### Fiesta

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

#### ELORRIO. Arriola

##### Medianoche en el jardín del bien y el mal

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.  
**AZKOITIA. Baztartxo**  
**Torrente, el brazo tonto de la ley**  
Eguakitza: 22:00.  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

### HEREDARAS LA TIERRA

**Zuzendaria:** Jocelyn

Moorhouse.

**Aktoreak:** Michelle Pfeiffer, Jessica Lange, Jason Robards eta Jennifer Jason Leigh.

Pulitzer saria irabazi zuen Jane Smiley idazlearen nobela oinarritutako filmea. *Larry Cook* zaharrak dituen lurrak bere alaben artean banatzea erabakiko du eta horrek familiaren banaketa ekarriko du atzetik... Orduarte ezkutuan izandako sekretuak, elkarren arteko lehiak edota bete gabeko desioak agerian geratuko dira. Guzti horren ondorioak ustekabeak eta,aldi berean, askatzaileak izango dira.



### FIESTA

**Zuzendaria:** Pierre Boutron.

**Aktoreak:** Jean-Louis Trintignant, Dayle Haddon eta Gregory Colín.

Orain lau urte Oñatiko hainbat tokitan errodatu zen filmea, azkenik, pantaila handian ikusteko aukera. Jose Luis de Vilallongaren nobela autobiografikoan oinarrituta, gerra zibilean Francoren alde borrokatzeraz bidaltzen duten gazte baten gorabeherak azaltzen zaizkigu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

**Gallastegi**

*Jostundegia*

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85


**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**Fagor taldeko zuzendari-tzak eta Emun, lana euskalduntzeko Arrasaten sortutako kooperatibak, Fagorren barruan euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatu berri dute. Jabier Gantxegi bergararra Fagorreko presidenteordea eta Fagor Elektratresnak-eko presidentea dugu; berarekin hitzarmenaren gainean berbetan izan gara.**

**G.** Zela sortu da hitzarmenaren aukera?

**E.** Esan behar da Fagorren aurretik beste enpresa batzuk badirela plan hori martxan jarrita dutenak (lehenengoetakoa Antzuolako Elay izan zen, hain zuzen ere). Elhuyarek eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak martxan jarritako Elie elkartearen bitartez antzerako hitzarmenak egin izan dira enpresa munduan. Fagorren ere beti izan dugu euskara bultzatzeko kezka hori; komite guztietan euskara batzordeak dira eta horiek izan dira hitzarmen honen bultzatzaileak.

**G.** Zertan datza hitzarmena?

**E.** Hitzarmena Fagorreko 8 kooperatibetara zabalduko da, lau etapatan banatuta. Lehendabizikoan, proiektuaren bideragarritasuna aztertuko da, hau da, enpresa barruan plana jartzeko baldintza egokiak ematen diren ikusi (baldintzetako bat euskara mintzatzailleak, gutxienez, %50 izatea da). Fagor Elektratresnak-en, esate baterako, 3.400 bat langile gara eta plana egosketako plantan hasi gara jartzen. Ondoren, planaren diseinoa egin behar harko litzateke, hau da, plan espezifiko area horretarako (gu momentuan honetan ari gara); gero, plana

## JABIER GANTXEGI

Fagor-eko presidenteordea

*“Hitzarmenarekin, enpresan euskararen erabilera bultzatzeko itxaropena daukagu”*



Jabier Gantxegi Fagor Elektratresnak-eko presidentea da gaur egun.

martxan jartzea etorriko litzateke, euskarazko ikastaroak emanez eta euskara lantzen hasteko taldeak sortuz (bazkideak ados egon behar dira, hau boluntarioa da eta); eta, azkenik, ebaluazioa, 6 hilabetetik 6 hilabetera egingo litzatekeena. Plangintza osoa 4 bat urterako da eta euskarazko oinarrizko maila lortzea dau-

**“Euskara bultzatzeko Emun-ekin sinatutako plana serioa da. Noraino heldu gure eskuetan izango da, bazkide guztien eskuetan”**

ka helburu. Pausoz pauso joango gara, izan ere, etapa guztiak oso ondo definituta daude eta ezin da aurrera egin aurreko etapa ondo bete arte.

**G.** Zuen kasuan, zenbat langilerengan izango da eragina hitzarmenak?

**E.** Egosketako plantan 310 bat bazkide dira eta hor aplikatuko da hitzarmena. Era berean, Zuzendaritza batzordean (gaur egun denok gara euskaldunak) eta Pertsonal departamentuan ere jarriko da martxan. Hitzarmenak agindutako euskarazko mintzatzailen kopurua justu-justu betetzen da gure enpresan. Kontutan izan, Fagor Elektratresnak-ek 1960-70eko hamarkadetan gorakada nabaria izan zuela eta kanpoko jende asko etorri zela. Dena den, oraingo bazkide edo langile berrien gehiengoak badaki euskaraz eta horixe izan da proiektua martxan jartzeko arrazoietako bat. Ahal den tokietan (barruko nahiz kanpoko harremanetan eta inguruko merkataritza harremanetan ere bai) helburua euskaraz mintzatea da.

**G.** Euskararen erabilera zenbatekoa da gaur egun?

**E.** Euskara dexente erabiltzen da, langileen arteko komunikazioa euskaraz egiten da askotan eta barruko komunikazioak euskaraz zein gazteleraz egiten dira. Kartelak, indikadoreak eta abarrak ere bi hizkuntzetan daude. Batzarrak euskaraz egitea nekezagoa gertatzen zen, beti dagoelako euskaraz egiten ez duen norbait. Dena den, nik uste hitzarmen honekin hori piskat apurtzeko aukera izango dugula. Plan serioa da eta euskararen erabilerari bultzada emateko itxaropena daukagu. Noraino heldu gure eskuetan izango da, bazkide guztion eskuetan. B




# Urteagan babes ofizialeko 68 etxe egiteko hitzarmena onartu da

## Jaurlaritzak eta Udalak hitzarmena sinatuko dute

**Urteaga kalean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena onartu zuen Udalbatzak joan zen eguakitzean.**

Oraindik sinatzeke dagoen hitzarmenean jasotzen denez, Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 68 etxebizitza eraikiko ditu Urtega kalean. Lehen fasean, 44 etxebizitza eraikiko dira Movilla enpresaren ondoan dauden lursailetan eta bigarren fasean, beste etxebizitzak eraiki eta gero, gainontzeko hogeita biak, dagoeneko botata dagoen La Parra etxearen ondoren doazena beste etxeak bota eta gero geratuko diren lursailetan.

Hitzarmena sinatzen denetik sei hilabetera Udalak egin beharreko espropiazioak egin beharko ditu lehen faseko lanak hasteko. Bestalde, etxeak eraikitzeke behar den luraren zesiaio egingo dio Udalak Jaurlari-



Movilla enpresa ondoko orubeetatik La Parra zegoen etxeraino babes ofizialeko 68 etxebizitza egingo dira.

tzari eta lur horien kostua (Jaurlaritzako teknikoek egindako balorazioaren arabera, 37.354.249 PTA.koa) bere gain hartu beharko du Udalak.

Eusko Jaurlaritzā izango da etxebizitzaren promotorea eta Bergarako Udalak egindako lurren zesiaioaren orde, etxebizitza berrien bajeetan 370 metro karratu ja-

soko ditu. Baju horien zati bat San Antonioko ermita berria egitera bideratuko da.

Bigarren fasean eraikiko diren etxebizitzak egiteko, dagoeneko etxeta dagoen La Parratik Movilla ondoko lursailera doazen etxeak bota egin beharko dira eta botako diren etxeen jabeak berriz ere kolokatzeko kon-

promezua hartuko du Jaurlaritzak.

Eraikitze lanak noiz hasiko diren jakiterik ez dago oraindik, baina urte amaierarako hastea espero da. Nolanahi ere, Deskarga errekararen ubideratze lanak egin beharko dira aurretik. Lan horiek adjudikatuta daude, baina oraindik ez dira hasi. B



## PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

*Mujika*  
gozologia



**Berezitasunak:**  
Bizkotxoak  
Errellenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34



Elkarrizketa saioetan parte hartu duten sindikatu, talde, alderdi politiko edo erakunde ezberdinetako ordezkariak.

## Bergarako Herritarren Foroak aurtengo ikasturteari agur

### Gatazkari buruzko hiru ondorio plazaratu dituzte

**Bergarako** Herritarren Foroak joan zen eguenean eman zion amaiera aurtengo ikasturteari. Hiru urte lanean eman dituen herritarren foroan parte hartzera eta gatazkaren inguruko euren ikuspegia ematera kanpotik etorritakoek eta bertako foroko kideek afaria egin zuten elkarrekin Txipiron elkartean.

Hainbat gai eta iritzi zein ideologia ezberdinetako partaideak izan arren, erres-

petuan oinarritutako elkarrizketaren bidetik aztertu dituzte gaiak, foroko kideek adierazi dutenez.

Hiru izan dira, "kopuruz guk nahi beste ez badira ere", Bergarako Herritarren Foroak aurtengo elkarrizketa saioetatik atera dituen ondorioak, iritzi bateratua lortu ondoren: alde batetik, Irlandako bake prozesua eredugarritzat jotzen dute "egoera berdina ez dela jakinik, zer ikasia badagoela

uste dugulako"; bestetik, presoen legez kanpoko egoera salatzen dute eta Espainiako Gobernuko arduradunei, "giza eskubideak errespetatu dituzten eskatzen diete". Azkenik, "euskal arazo" edo "gatazka" deritzon honetan zerikusia duten agente ezberdinei "partaide-tza eraginkorragoa" eskatzen diete herritarren foroko kideek, "elkarrizketa dinamikak maila guztietara hedatuz". B

## "Bergara 1998" gida kaleratu da

Astelehenean aurkeztu zen Udaletxean "Bergara 1998" izenburuko gida-liburua. Bergarako errealitate historikoa, soziala, administratiboa, ekonomikoa eta politikoa herritarrei eta Bergarara etortzen direnei hurbiltzea da gidaren helburua.

Gidak 60 orrialde ditu, koloretan inprimatuta dago eta hainbat sail aurkitu daitezke bertan: artea eta historia; kirolak, ikuskizunak eta jaiak; ekonomia eta enpresak; zerbitzu publikoak; hotelak eta jatetxeak, eta dendak eta azokak. Arlo bakoitzari buruzko informazioaz gain, telefono eta helbideak ere badakartza. Horretaz gain, herriko plano eguneratua dakar.

Herriko denda, taberna, jatetxe, toki publiko, enpresa eta etxe guztietan banatuko da doan. Asmoa bi urtetik behin kaleratzea da. B



**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3



**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**C.B.**

**ELEKTRIZITATE**  
**MATERIALEN**  
**SALMENTA ETA**  
**INSTALAKUNTZA**

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarrak*

Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

# Euskal presoen aldeko hainbat ekimen astean zehar herrian

**Kondenaren** hiru laurdenak beteta dituzten presoen aldeko Korrika zapatu goizean pasatu zen Bergararik. Korrika 9:15etan iritsi zen Zubiberrira eta bariante osoa zeharkatu ondoren, Arrasaterantz abiatu zen.

Zubiberritik Uritxa arteko 8 kilometroak herriko hainbat lasterkari ezagunek egin zituzten, eta kilometrotik kilometrora lekukoa eskuz esku pasatzen joan ziren. Jose Mari Etxaniz Askatu irakurri zitekeen pankarta eskuan zuten dozena bat lagunek ongi etorria egin zioten Korrikari Zubiberrin.

Bestalde, presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko Senideak-ek eguakitzera deitutako 15 minutuko geldialdiak eragin desberdina izan zuen Bergaran. Eguerdiko hamabietan 15



Udaletxe aurrean eguakitzean egindako enkartelada.

minutuz lana utzi, pertsianak jaitsi eta kalera irteteko deia zabaldu zuten presoek familiartekoek eta hainbat talde eta erakundek bat egin zuten deialdiarekin. Bergaran, denda eta taberna batzuk itxi egin zuten, baina beste batzuk berdin-berdin jarraitu zuten lanean.


San Martin plazan, Udaleko, UNEDeko eta Aranzadi ikastolako langile batzuk eta hainbat herritar bildu ziren Udaleko LABeko sekzio sindikalak deituta. Eguakitz gauean, berri, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko etxafleroak jaurti ziren kalean. B

## Xiringa eskuetan zuen gazte batek lapurretan egin

**Masterreka** kaleko "Centro cien" dendan lapurretan egin zuten martitzen arratsaldean. Bertako jabeak adierazi duenez, xiringa batekin-mehatxu egin ez atakatu zuen 27 bat urteko mutil gazte batek. Kutxan zuen dirua emateko eskatu, eta zegoen guztia eramane zuen gazteak. B

## Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa

**Emakumeentzako** autodefentsa teknikei buruzko ikastaroa antolatatu du Udalak. Emakumeen autodefentsaren alde fisiko eta psikologikoak, autodefentsako teknikak (oratzaren aurkakoak, tirakaden aurkakoak...), eta autodefentsa tresnak (giltzak, poltsak, euritakoak, arma naturalak...) aztertuko dira. Ikastaroa uztailaren 6tik 30era bitartean izango da martitzen, eguazten eta eguen arratsaldeetan. Informazio gehiago, Udaleko Kirol eta Ongizate zerbitzuetan. B



## LANAK HASI DIRA ZABALOTEGIN

Udaleko obretako langileek joan zen astetik lanean dihardute Zabalotegi atzealdea konpontzen. Mariaren Lagundiatik Mizpirualde egoitzara arteko zatian, Zabalotegi atzealdean, estolderia eta argiteria berritzu, farola berriak ipini eta asfaltua botako dute zoruan. Bestalde, Udal Euskaltegiko alanbrezko hesia, orain nahiko ondatuta dagoena, ere konpondu egingo dute.

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Arte kale 6 Tf.: 943 76 13 29

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerreaka 13 behea ☎ 943 76 55 00

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

# Berrigara

329 zenbakia.  
1998ko ekainaren 26a.

**Errotalde Jauregia.** 20570 Bergara  
**Telefonoa:** 943 76 03 97.  
**Faxa:** 943 76 29 77  
**E-mail:** berrigar@sendanet.es  
**Argitaratzailea:** JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

## TENIS PISTA EGONKORRAK BERGARAN


Tenisean jokatzera gustoko dugun mutil batzuk gara eta karta honen bitartez Udalari Labegaraietan edo beste nonbaiten tenis pista egonkorrak jartzeko eskaera egin nahi diogu. Egia da gaur egun Kiroldegian tenisean aritzeko aukera bada goena baina kantxa alokatu ondoren, norberak egokitu behar du pista, sareak eta beste jarriz. Ez du lan gehiegi eskatzen baina 10 bat minutu behar dira horretarako eta, partidu ostean batez ere, ez da horretarako gogo haundirik izaten.

Orain Kiroldegiaren kanpoaldean erabiltzen dugun eremuaren alboan bada belargune bat eta bertan pista bat egitea ez dugu uste oso garestia gertatuko litzatekeenik. Beste konponbide bat estalitako pistak egitea izango litzateke, neguan zehar, eguraldi txarra dela eta, gure kirol afizioa asetzeko aukera gutxi izaten dugu eta. Udaletik behin baino

gehiagotan entzun behar izan dugu Bergaran ez dagoela teniserako horrenbeste afizio baina benetan pista egokiak egongo balira, uste dugu orain baino jende gehiago animatuko litzatekeela tenisean jokatzerara. Beste herrietan (Oñatin, Eibarren, Azkoitian edo Elgoibarren) badituzte tenis pista egonkorrak eta Udalari aukera hori aztertzeke eskatu nahi genioke.

*Alex Garcia eta  
biru sinadura gehiago*

## tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Aztertu berri den euskal kirolari buruzko legea dela eta, zer deritzozu Euskadik bere selekzioa izateari?



**Juan Azkarate**

Oso ondo, gainera aukera asko izango lituzke. Hala ere, zaila ikusten dut hori gauzatzea, baina ez dut uste utopia bat denik. Gero eta aukera gehiago daude.



**Ainhoa Amorrosta**

Ondo egongo litzateke. Nire ustez desberdinak gara, estatu bat, eta gure selekzioa izan beharko genuke. Hala ere, nekez lagako digute hori egiten...



**Serafin Quintana**

Ondo ikusten dut, aspirazio logikoa dela iruditzen zait. Dena den, oztopo asko dago tartean eta zaila izango da hori gauzatzea. Gustatuko litzaidake hori heltzea.


**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Jon Perezek** deitu digu aste honetan. Jon zinezalea omen da eta aurreko astean Novedades zinearen inguruan BERRIGARAN argitaratutako kartarekin bere adostasuna aza!du nahi du. Bergarako zinearen erosotasun falta salatzen zen bertan eta, horrez gain, beste pare bat puntu gehitu nahi ditu Jonek: alde batetik, filme bakotzaren amaieran izaten diren kreditoen (aktoreak, egileak, musikarena norena den eta abar) mozketa salatu nahi du eta, era berean, justu filmea amaitzean dagoela akomodadoreak irteerako kortinila erretiratzea, filmearen bukaera pantailan baino lehenago iragarri.



**Pepi Aldasoro**

Euskadik bere selekzioa izatea ondo ikusten dut, baina ez dakit posible izango den... Kirol mailan maila handia dago hemen, paper ona egingo genuke.



**Egoitz Jainaga**

Espainiako futbol selekzioak Euskadiko jokalarik asko ditu eta ondo egongo litzateke Euskadiko taldea osatzea. Beste kiroletan berdin, baina zaila izango da.



**Consuelo Ibarra**


Ondo. Ez dut kirol gaiez asko ulertzen, baina Espainiakoan hemengo jokalaririk badituzte, Euskadirekin ere jokatu dezakete. Baina ez dakit posible izango den.

■ ikuspuntua: **iñazio arregi**

### San Joan bezperan

"San Juan San Juan berde, subak eta zapuak erre..." kantatzen zuten gure herriko ume eta gazteek ekainaren 23ko gau liluragarrian, auzoan jasotako traste zahar eta era guztietako erregeaiekin suaren inguruan. Ohitura honek indar handia izan du gure herrietan eta oraindik gorde, bizi eta disfrutatzen diren horietako bat dugu.

Aurtengo San Joan bezperaren ilunabarrean Gipuzkoa osoa alderik alde egitea tokatu zait. Ikuskizun zirrargarria, gure herrietako muino, arro, baserri edo plazetatik, hodeietara abiatzen ziren gar luze edo kezko zutabeak ikustea. Mendez mende gorde izan den ohitura. Zahar eta gazte, gizon eta emakume biltzen dituen.



la fogata, porque es la noche de San Juan..."

Ez dut San Joan bezpera ezagutu Hego Ameriketara, baina bertso hauetatik ondoriozta daitekeenez han ere sua da jaiaren arrazoia. Haiek nequaren sarreran, guk uda hasieran. Han urteko egun motzengan, hemen luzeengan.

San Joan sua, han eta hemen, garbitzailea da. Iraganeko gertaera tristeak, hondakinak, era-

Toki askotan ospatzen da, eta alde guztietan suarekin lotura ei du. Raul Gonzalez Tuñon argentinar olerkariaren poemak dio: "En la calle enfrolada, el piberío viene y va alrededor de


soak... kiskaltzeko baliogarria. Atzo, suei begira pentsatzen ari nintzen zenbat gauza eta gertakizun erre beharko genituzkeen: arestian aldizkarietan pil-pilean agertzen zaigun gerra zikina eta bera bultzatu zutenak, naturari Doñanan eginda eraso, Acerinoxeko ihes erradioaktiboa...

San Joan egunez irratia piztu dut eta konturatu naiz bezperako suak ez duela bere eginkizun garbitzailea bete: Euskaldunak euskalduna hiltzen jarraitu behar omen du, Doñanan gertatutako hondamena ez da umeek piztutako suteen ondorioz desagertu, eta munduko herrien arteko desberdintasunek areagotzen jarraituko dute.

Suak ez du bere helburua bete eta egur ilinti hotza ez du oraindik inork jaso herriko plazatik. Halere, ohitura zaharra mantentzen jarraitu beharko dugu. Merezu du. **B**

■ asteko menua: **belatz kantina**

## Arroz-esnea



JOXEAN AZKARATE  
*Belatz kantinako*

### OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- 2 litro baserriko esne
- 160 gr arroz sendo
- 100 gr azukre
- Kanela makila bat
- Bi limoi azal

### PRESTAKETA

- Esnea, kanelarekin eta arrozarekin batera, egosten ipini, neurrian, ez oso su bizian, ezta motelean ere.
- Hasiera-hasieratik eragiten joan, estalkia ipini barik.
- Irekiten hasten denean, ordu erdi pasatu ondoren, azukrea eta limoia gehitu eta beste 30/40 minutuz zaindu, ontzian pegatu ez dadin eta arrozak almidoia jarein dezan.
- Arroz-esnea sendotu ondoren, prest dago sutatik kentzeko; horretarako egurrezko koilara erabiliko dugu.

■ adituen esanetan

## Arrain gorriak Deba ibaian

IÑAKI IRIZAR, *biologoa*

Egia da Deba ibaia duela urte batzuk baino garbiago dagoela baina oraindik urak oso kutsatuta daude. Leku batzuetan ikusten diren arrain gorriak urre-arrainak (*Carassius auratus*) dira. Dena den, hauek ibaian egoteak ez du esan nahi urak garbi daudenik, arrain mota hau ur oso kutsatuetan bizi daitekeelako. Hala ere, arrainen errekuperazioa ez da urte askotako gauza izango, jadanik martxan dagoen saneamendu planarekin ibaiko uraren kalitate egokia lortuko baita. Beraz, arrainen berriz ibaian ikustea ez da zaila izango. Baina arazo gehiago izango dituzte ibaiari loturiko beste bizidun batzuek.

Ibaiaren kalitatea arrainak egon edo ez egotearekin lotzen dugu sarritan. Baina ibaiko ekosistemak bi elementu ditu: ur-korrontea eta korronte hori inguratu eta babesten duen landaretza, altzadia gure kasuan. Ibai-ertzeko landaretza hau beharrezkoa da ibaian bizi diren beste animalia batzuk (igaraba edo bisoia adibidez) babesteko eta baita uraren tenperatura erregulatzeko ere, arrainen bizi-baldintzak mantentzen lagunduz. Gelditzen diren altzadi pusketak mantentzea oso garrantzitsua da; gaur egun Usondo inguruan majo errekuperatzen ari da, Zurraderon ere bai... Ibai-ertz hauek ezinbestekoa dira. B

■ bergarako gordailutik

## LEHENAGOKO ELIZA BAT SAN PEDRON

Imanol Sorondo

**H**erri askotan esan ohi da "eliza hau baino zaharragoko bat ba omen zen hemen". Gure artean ere, Santamainan eta San Pedron, lehenagokoak izan ziren. Gaur, San Pedrokoari helduko diogu, bertan topatu baitzituzten zaharragoaren oinarriak.

Otamenditar Pedro, Insaurragatar Jose eta Iribetar Migel, bergararrak, hargin maisuak dira, eta San Pedroko elizan dihardute 1748. urtean hilobien harrizko horma berriak eta eliza guztiko harlauzak ipintzen. Horretarako, lur guztia mugitu dute, eta zer topatuko azpian eta lehengo eliza zaharrena erdiko lau pilareak.



Leizaola eta Lilitar Jose Inaziok, alkate jaunak, lehen esandako bergarar harginak Elkorotar Juan Bautista iskribauarengana deitu ditu, eta honen aurrean zin egin ondoren, aitortu dute: lurra oinarriak topatzeraino atera dutela, lau pilare borobilien arrasto argiak ikusteraino; horiek ondo landutako karaitz ederkoak direla, bakoitza 6 oin eta laurdenekoa bueltan; lehenengo Ebanjelioaren aldera, pulpitoa baino piska bat beheratxoago dagoela, eta honen parekoa, beste aldera 24 oin eta erdira; atzeko pilareak 41 oinetara daudela. Nabari dela nolako aintzintasuna daukaten, eta azaldu-tako arrastoak lehenagoko eliza zaharrena barne nagusia erakusten dutela eta, bere ustez, ia oraingoa bezain haundia zela. B

## San Joan suak

Ohiturari jarraituz, herriko hainbat tokitan **San Joan suak** ikusi ahal izan ziren martitzen gauean. Baserrietan eta kalean ere suak piztu ziren eta ikusle dexente bildu zituzten han eta hemen. Beheko Estazioan, esatera baterako, gaztetxoek zazpi bat su prestatu zituzten eta bildutako materialak ondo baino hobeto piztu zuen sua. Era berean, San Joan egunean, eguaztenean, **garoa eta elorria** ikusi zitezkeen herriko hainbat ataritan. Garai batean **Benigno Zurutuza** zenak atarietan urrebotoia eta loretxikia jartzeko ohitura zeukan San Joan egunez. Auzoetan garoa egunsentian jartzeko ohitura dago, on egingo dion goizeko ihintza hartu dezan. **Eguzkilorea** ere jartzen da zenbaitetan. Ohitura hauek urteko gaitzak uxatzeko mantentzen ei dira.



## Trikiti eskolako ikasleen afaria

Aurten **Jarduneko trikiti eskolan** aritu diren ikasleek kurtsu bukaerako afaria izan zuten eguakitzean San Migel-pe elkarrean. Guztira, 44 lagun (gehienak 8 urtetik 12 urtera bitartekoak) izan dira aurten pandero eta soinu ikastaroan. Eguakitzean, mahaiaren inguruan bildu eta primeran afaldu zuten guztiek, tartean **Maidar Osa** (panderoa) eta **Iosu Zeziaga** (soinua) irakasleek ere bai. Afalostean bere ikasleek ikasitakoa frogatu ahal izan zuten eta benetan maila bikaina erakutsi zuten. Eutsi afizioari!!



## Dantzari bikainak

Bergarar dantzariak primeran aritu ziren domekan Seguran jokatu zen **Euskadiko Dantza Solte Txapelketan**. **Aitzol Ena**, **Nagore Ziganda** bikote hernaniarrarekin, bigarren postuan sailkatu zen eta sari gisa zilarrezko plaka eta 70.000 pezeta eraman zituzten; **Maite Lazkano** eta **Jon Aranburu** laugarren izan genituen eta **Asier Enak** (Aitzolen anaia) eta **Irantzu Lizarralde**k seigarren postua eskuratu zuten. Zapatuko sailkatze proban parte hartu zuten 25 bikoteetatik 12 izan ziren domekako finalean. Partaideek fandangoa eta arin-arina dantzatu behar izan zituzten epaimahaia eta Baratza pilotalekuan bildutako jendetzaren aurrean.



EGIZU GARAIZ SAN MARTZIAL EGUNERAKO ZURE ESKAERA



# Manso Hnos. S. A.

*Lambiñon*

Amillaga, 11. 123 posta kutxa, BERGARA.  
Tf 943 76 14 48. Tf eta faxa 943 76 14 49

**Ondo pasa San  
Martzialean!**

# MINER ardak

- Termino de Ugarte,
- Viña Albina,
- Cordovín klaretea,
- Ameztoi txakolina
- eta abarren banatzailea.

**Eskaerak egiteko:**

**943 76 01 34**

**ETXERA**

**ERAMATEN DUGU.**

# Larrañaga

BANATZAILEA

Esnea, ura, sagardoa, Errioxako ardoa, garagardoa...

**ETXERA ERAMATEN DUGU**

Martoko 32, behea  
BERGARA

Tf.: 943 76 45 94  
Mobila: 907 65 76 34

ZUBI-BERRI



JATETXEA

San Anton auzoa  
**943 76 30 24**

**Paella  
+  
oilaskoa  
=  
1.000  
PTA**



# Gaspar

JATETXEA

**Paellak, oilaskoak,  
tortillak, gisatuak...**


Barrenkalea 31. Tf. 943 76 20 02

# TOKI-ONA


Bodegoia-taberna

Patata-tortillak, bakailao-tortillak, paellak,  
bakailaoa pil-pilean eta bizkaitar erara

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



# JAKIN



**a k a d e m i a**

## INFORMATIKA

- Ofimatika
- Aurkezpen grafikoak
- Programazio hizkuntzak
- Internet

## KONTU ETA MERKATAL GESTIOA

- Nominak eta gizarte segurantzza
- Kontabilitatea
- Fakturazioa

## MEKANOGRAFIA

## ENPRESARITZA klase partikularrak

## ADMINISTRARITZA ALORREKO klase partikularrak

**TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ**

Santalaitz 6 • Tf. 943 76 00 68 BERGARA / Arregitorre 6 • Tf. 943 74 08 95 ELGOIBAR



# Intsumisioa: Udala legeak harrapatuta

1996an Bergarako Udala udalerrri intsumisioa deklaratu zen Herri Batasuna eta Eusko Alkartasunaren aldeko botoekin. Lanpostuak kaleratzerakoan, Justizia Ministeritzak administrazio publikoan lan egiteko intsumisioei aplikatutako inhabilitazioa kontutan ez hartzeko erabakia hartu zuen Plenoak. Baina erabaki hori aplikatzeko oztopo bat baino gehiago izan du Udalak.



1996an Bergara udalerrri intsumitua deklaratu zen, Euskal Udalerrri Intsumituen Mankomunitatean integratuz.

O rain dela bi urte pasatxo, 1996ko apirilaren 10ean, Bergara udalerrri intsumitua deklaratu zen eta Eudiman, Euskal Udalerrri Intsumituen Mankomunitatean, integratu zen handik gutxira. Eudimaren estatutuak onartzeko eta Eudiman Udalaren ordezkariak izendatzeko ez-ohizko Plenoa egin zen iazko apirilean. Udalbatzak (HB eta EAren aldeko bo-

toekin), besteak beste, Kodigo Penaleko intsumisioari buruzko atalak ez onartzea eta gaitzestea, epaitutako bergarar intsumisio guztiei elkartasuna adieraztea, ordezkari giza zerbitzua betetzeko kontzientzia eragozleak onartzen dituzten instituzio edo organismoekin ez kolaboratzea eta espainiar ejerzitoari Bergarako lurretan maniobrarik egiteko baimenik ez ematea onartu

zuen. Era berean, enplegu eskaintza publikoan ateratzen diren plazak betetzeko oinarrietan, Kodigo Penaleko intsumisioari buruzko neurriak ez betetzea onartu zen. Ondorioz, deialdien oinarri edo baldintzetan honako puntu hau jasotzeko erabakia hartu zen: "Disziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izan, eta funtzio publikoak



ARTIBOIA

## Enplegu baldintzetan Estatuak intsumisoei aplikatzen dien inhabilitazioa kontutan ez hartzea erabaki zuen Udalak baina Justizia Ministeritzaren errekurtsok jaso ditu

betetzeko ezgaiturik ez egotea, indarrean dagoen kode penaleko 604. artikulua ezarritako zerbitzu militarra ez betetzearen ondorioz izan ezik”.

### Lanpostu fijoak ez

Hain zuzen ere, baldintzetan jasotzen den salbuespen horregatik, lanpostu fijoaren bat kaleratu nahi izan duen bakoitzean, Justizia Ministeritzaren errekurtsok jaso du Udalak. Hau da, Udalak onartutakoaren arabera, konbokatutako lanpostuetara intsumisioak aurkeztu daitezke, baina, bestalde, legeak ez du hori baimentzen.

Lanpostu fijoaren baldintza pleguak Plenotik pasatu behar dira lehenbizi, Estatuko administrazioak gainbegiratu baino lehen. Behin-behineko lanpostuen kasuan, berriz, nahikoa da Gobernu Batzordeak (tripartitoak osatua) onartzea, Estatuko administrazioari horren berri eman barik. Intsumisioekiko inhabilitazioa kontutan ez hartzea erabaki zuenetik, Udalak behin-behineko lanpostuak kaleratu ditu Estatuaren aipatutako errekurtsok saihesteko.

Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, “momentuz ezin dezakegu lanpostu fijoak kaleratu berehala Justizia Ministeritzaren errekurtsok jasoko

genukeelako. Kontua da eztabaida hori hor dagoela eta lehenbailehen irtenbide bat topatu beharko diogula. Ministeritzatik errekurtsok etorriko dela jakinda, ezin dugu lanpostu fijoak adjudikatu, bestela handik gutxira ziurrenik langilea kaleratu beharko genuke eta. Eta hori jendea engainatzea da, lanpostu faltsuak lirartekeelako. Oraingoz, eta auzi hau konpondu bitartean, behin-behineko lanpostuak bakarrik kaleratuko ditu Udalak. Egia da kontu hau nahiko geldirik dagoela, baina premiazkoa da irtenbide bat aurkitzea eta gai hori mahai gainean jarri behar dugun lehenbizi. Dena den, soluzio zaila ikusten dut Gobernuak intsumisioekiko inhabilitazioak mantentzen dituen bitartean. Bestalde, lanpostuei dagokienez, momentuz ez daukagu lanpostu fijoak kaleratzeko beharrik, baina laister Udalaren organigrama aztertzeak asmoa daukagu eta baliteke hainbat lanposturen beharra somatzea”.

### Oztopoak lege aldetik

Antza denez, Udalak bazeukan gutxienez bi lanpostu fijo (udaltzaina eta euskara teknikaria, hain zuzen ere) kaleratzeko asmoa, baina ezin izan du aurrera egin lege aldetik oztopoak direla medio. Udaltzainarena, momentuz, geldirik dago eta euskara teknikariarena, premiazkoa zenez, hiru urterako betetzeko atera zen.

## Estatuko administrazioaren aldetik oztopoak

az, apirilaren 28an, Udalbatzak Eudimako estatutuak onartu zituen eta Justizia Ministeritzak erabaki horren kontrako errekurtsok aurkeztu zuen Euskal Autonomi Elkartearen Gobernu ordezkariaren bitartez. Era berean, 1997 eta 1998ko Eudimako kuota ordaintzeko 406.540 pezetako partida bat onartu zuen Udalbatzak aurtengo martxoan. Berriz ere, Justizia Ministeritzak akordio horren kontra azaldu zen. Bergarako Udaltxean HB eta EA Eudimaren estatutuen alde agertu baziren ere, EAJ eta PSE-EE kontra izan dira hasieratik. Bergaran, tripartitoak ez zuen jarrera bera azal-

du Eudimaren integrazteko orduan. Mikel Eguren eta Juan Mari Garitano HB eta EAKo zinegotziak dira Udalaren ordezkariak Eudimaren. Orain arte EAJ, HB eta EAKo bina ordezkari izan dira Eudimako zuzendaritzan baina EAJk ez dauka gaur egun ordezkariarik bertan. Eudimaren borroka nagusia, mo-

mentuan, intsumisioekiko inhabilitazioen aurrean alderdi politiko guztien kontsentsoa lortzea da. Era berean, Eusko Legebiltzarrerara joteko asmoa daukate, honek Madrileko Gobernuari intsumisioei inhabilitaziorik ez aplikatzeko eskatu diezaion. B



Mikel Eguren Herri Batasunako zinegotzia, Udalaren ordezkarietako bat da Eudiman. Bere hitzetan, "Eudimaren barruan gai horrekiko postura bateratu bat lortzeko ahaleginetan ari gara. Gaur egun, Eudiman sartuta dagoen herri baikoitzak modu batean jokatzeko du horren aurrean; batzuek, Bergarako kasuan bezala, intsumisioekiko inhabilitazioaren salbuespena jasotzen dute baldintza pleguetan, beste batzuek hori jasotzeko aukera ematen diete intsumisioari buruzko gaiak Eusko Alkartasunarekin batera aurkeztu beharra daukagu, baina Eakoek ere ez diote gaiari heltzen. Estatuko administrazioak Eudimako estatutuak onartzeagatik errekurtsioa aurkeztu zuen Udalaren aurka eta Udala defendatzeko Plenoan abokatu baten izendapena Plenoan aztertzeke proposamena luzatu genion EAri. Bi hilabete baino gehiago pasatu ondoren, ez dute gaiarekin ezer egin".

#### Eztabaida Eudiman

Juan Mari Garitano Eako zinegotziak esan digunez, "proposamen hori plenera eramateko asmoa daukagu. Gertatzen da HBk alderdiko abokatu bat izendatzea nahi zuela eta, gure ustez, lojikoagoa da Udalak daukan abokatu-

ren batekin aurrera egitea". Lanpostuak kaleratzeko lege aldetik dauden arazoak, Garitanok, epe laburrera behintzat, ez die soluziorik ikusten; "legez kanpo gaude eta oraingoz horri soluzio bat ematea zaila da, Estatuko administrazioa gainean daukagulako eta errekurtsioak berehala heltzen direlako. Baina guk intsumisioaren alde lanean jarraitzeko asmoa daukagu, ondorio guztiekin. Badirudi laister ejerzitoa profesionala izango dela eta, beraz, intsumisioekiko inhabilitazioak indarririk gabe gertatzeko itxaropena daukagu". Bestalde, Eudima barruan desmarkeak egon dira

azkenaldian; "EAtik ere desmarke gorrak izan dira baina, guk, alderdi moduan, oraingoz Eudima barruan lanean jarraitzeko asmoa daukagu. EA intsumisioaren alde dago argi eta garbi, edozein ejerzitoaren aurka gaude. Eudima barruan, berriz, badira ejerzito espainolaren aurka eta ETaren alde daudenak eta arrazoi horregatik izan dira desmarke gehienak. Desprestijiatu egin da Eudima piskat eta gorabehera asko izan dira azkenaldian. Dena den, Eudimak bere gauza onak baditu, intsumisioaren alde lan interesgarria egiten baita". B

### Lanpostu fijoen baldintza pleguak Plenotik pasatu behar dira lehenbizi. Estatuaren errekurtsioak saihesteko, Udalak behin behineko lanpostuak kaleratu ditu azkenaldian



Argazkian, Pleno bateko artxiboko irudia. Eudimaren estatutuak onartzeko erabakia Herri Batasuna eta Eusko Alkartasunaren aldeko botoekin onartu zen.

**ETXAGI**  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

**IRURAK PINTURAK O.E.**

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA


AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

**Larkano**  
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03

# I P I N T Z A K O

## futbol txapelketa



### partiduak

#### NESKAK

##### Eguaztena 1

- 19:15: Baleike-Azkenak  
20:30: Gamma Rai-Biko Bokategia  
20:30: Potzu Ta Zapaburuak-Eztaki

#### MUTILAK

##### Eguakitza 26

- 19:15: Matxakategi-A Ze Flaxa La Guipuzcoana  
20:30: Arloteak Oilagorra-Ezinleike

##### Astelarena 29

- 19:15: Shaktale-Angiozar  
20:30: KIB-Etengabe

##### Martitzena 30

- 19:15: Mongatxurrak-La Juve  
20:30: Amilotx-Fo Fo

##### Eguena 2

- 19:15: Osintxu-Gu Geu  
20:30: La Beccia Kukuxumuxu-Bildurbarek Opel/Lam

### emaitzak

#### NESKAK

Baleike-Las Rascamantas	9-0
Potzu Ta Zapaburuak-Gamma Rai	1-1
Biko Bokategia-Eztaki	16-2

#### MUTILAK

Ezinleike-Matxakategi	0-1
Xurrupak-Arloteak Oilagorra	2-4
KIB-Manitou	2-2
Etengabe-Shaktale	1-3
Amilotx-Facuta	2-3
Fo Fo Fo-Mongatxurrak	1-3
La Beccia Kukuxumuxu-Game Over	2-0
Bildurbarek Opel/Lam-Osintxu	1-0

### nesken futbitoak

#### Domeka 28

- 16:30: Bergarako Lagunak-Indo San Andres  
17:30: Potzu Ta Zapaburuak-Nifis (3. eta 4. postuak)  
18:30: The Road Island-Gu Geu (Finala)  
Amaieran, sari banaketa: Azkenak eta Zutaz  
Pentsatzen taldeek ere sariak jasoko dituzte.

### jokoz kanpo



**Ainhôa Larrañaga**  
POTZU TA  
ZAPABURUAK

**G.** Zer iruditzen zaizu aurten neskei jokatzeko aukera ematea?

**E.** Oso ondo. Neska askok eman dute izena eta horrek jokatzeko gogo dagoela adierazten du. Antolatzaileek zerbait berria egin nahi zuten eta nesken txapelketa antolatzea erabaki zen. Gainera, neska talde bat ere badago txapelketako arduradunen artean.

**G.** Zer da zure taldearen gauzarik hoberena?

**E.** Batzuk ez daude futbolean jokatzeko ohituta eta akats bat egiten dutenean, errudun sentitzen dira eta horri aurre egiteko elkar animatzen dugu.

**G.** Eta txarrena?

**E.** Ez dugu zehazten partiduetara zenbat etorriko garen.

**G.** Nola zabiltzate?

**E.** Ondo.

**G.** Zein da faboritua zure ustez?

**E.** Nesketan, Biko eta gu.

**G.** Nola gelditzea espero duzue?

**E.** Finalera heltzea espero dugu.

**G.** Mundiala jarraitzen duzu?

**E.** Bai.

**G.** Clementeren aldekoa ala kontrakoa?

**E.** Ez aldekoa eta ez kontrakoa.

**G.** Zein taldetakoa zara?

**E.** Realekoa.

### golegileak

#### NESKAK

##### Kadeteak

1. Rachel Olabarria Baleike 10 gol  
2. Rebeca Fernandez Las Rascamantas 2 gol

##### Nagusiak

1. Eva Alzas Biko Bokategia 8 gol  
2. Naiara Beistegi Gamma Rai 4 gol

#### MUTILAK

1. Iban Etxeberrria Mongatxurrak 7 gol  
2. Gerka San Vicente Osintxu 6 gol  
3. Juan Luis Etxaniz Bildurbarek Opel/Lam 6 gol

### sailkapenak

#### A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Manitou	7	3	11	7
2. KIB	4	2	5	3
3. Angiozar	3	2	11	8
4. Shaktale	3	3	6	8
5. Etengabe	0	2	2	11

#### B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurrak	9	3	12	3
2. Facuta	6	3	8	11
3. La Juve	3	2	5	4
4. Amilotx	0	2	2	5
5. Fo Fo Fo	0	2	1	6

#### C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel/Lam	9	3	13	3
2. Game Over	4	3	4	5
3. La Beccia Kukuxumuxu	4	3	7	11
4. Osintxu	3	3	8	4
5. Altos Pornos	1	2	7	9
6. Gu Geu	1	2	2	9

#### D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Matxakategi	6	2	3	1
2. Insert Koin	4	2	4	1
3. Arloteak Oilagorra	3	2	5	4
4. Xurrupak	3	2	4	5
5. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	1	2	2	3
6. Ezinleike	0	2	0	4

### Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	6	2	14	0
2. Las Rascamantas	3	2	4	12
3. Azkenak	0	2	2	9

### Neskak, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Potzu ta Zapaburuak	7	3	6	3
2. Gamma Rai	5	3	11	4
3. Biko Bokategia	4	3	20	7
4. Eztaki	0	3	3	26

### argi

Antolatzaileek adierazi dutenez, jokalariek gehiegizkoak dira. Jokalarien eginbeharrak irabazten dituzte partiduetan eta arbitroen kontratuetan. Jokalarien eginbeharrak irabazten dituzte partiduetan eta arbitroen kontratuetan. Jokalarien eginbeharrak irabazten dituzte partiduetan eta arbitroen kontratuetan. Jokalarien eginbeharrak irabazten dituzte partiduetan eta arbitroen kontratuetan.

# Frantziatik zuzenean



## AGUSTIN ARANZABAL, selekzioaren kontzentrazioetik



AGUSTIN ARANZABAL  
Chantilly, Frantzia

Bulgariaren kontrako partidua amaitu ostean, gehienok telebis-tatik ikusi zenuten bezala, giroa nahiko motel zegoen. Morala lurrean geneukan eta bati baino gehiagori negar malkoak isuri zitzaizkion. Hau paradoja: 6 eta 1 irabazi eta triste baino tristeago. Clementeren aurpegia ikustea besterik ez zegoen, taldea nola sentitzen zen jakiteko. Berak adierazi zigunez, pozik dago jokalariek egindako lanarekin, alde horretatik ez dauka kejarik, eta gauzak ondo hartu behar zirela esan zigun, mundua ez zela han amaitzen. Era berean, han geunden asko Eurokopen izatea espero zuela azaldu zigun. Oraindik gazteak gara eta 2000. urteko Eurokopen, Holandan eta Belgikan jokatu dena, izatea oso ondo egongo litzateke...

Dakizuenez, Zubiren azken agurra izan zen eguaztenean. Partidu ostean, hamar bat minutu izan ginen berarekin hitz egiten eta lau mundialetan izan dituen esperientziak eta, horrelako egoerak gainditzeko lasai egoten ikasi behar

Frantziako mundiala bukatu da dagoeneko Clementeren selekzioarentzat. Bulgariari 6 eta 1 irabazi arren, selekzioa uste baino lehenago bueltatu behar izan da etxera. Atzo, eguna, Frantziatik bueltan Aranzabalekin izan ginen.

zela aipatu zigun. Bai Clementerekin eta baita Zubirekin ere asko ikasi dut. Clementerekin batez ere. Mundialean jokatzeko aukerarik ez dut izan, baina hala eta guztiz ere asko ikasi dut eta tentsio handia jasan behar izan dut nik ere, talde osoak bezala. Partidu ostean, Espainiako Errege eta Erregina ere aldageletara gerturatu ziren eta kanporatuak izana pena bat zela eta asko sentitzen zutela esan ziguten.

Gaueko 3:30etan ailegatu ginen hotelera eta heldu bezain pronto, oheratu egin ginen. Jokatu ez arren, leher egin da nengoen. Biharamonean, goizean, hegazkina hartu eta eguerdirako Miarri-

tzeko aireportuan nintzen; handik ko-txean Donostiaraino. 14:30ak inguruan heldu naiz etxera. Etxean dei batzuk atenditu eta ohera sartu naiz, deskantsatzera. Jadanik hainbat kazetariren deiak jaso ditut...

Uste dut Mundial honetan izan dugun arazorik nagusiena, prentsaren presioa izan dela eta, argi dago, oraindik ere gauza asko jasan behar izango ditugula; batez ere entrenatzaileak. Ikusi beharko dugu zeri aurre egin beharko dion etxera bueltatzean.

Egunkarietako titular batzuk irakurri ditut eta benetan desatseginak izan dira. Pasatu egin direla uste dut. Aurrekoan esan nuen bezala, entrenatzaileak ez du horrelakorik merezi, oso ondo portatu baita jokalariek.

Bergarako pare bat lagunak deitu zidaten. Jon Alberdik esaterako, animoak emateko deitu zidan lantegitik. Horrelako deiak benetan eskertzen dira.

Beno, hau guztia amaitu da eta orain opor txiki batzuk hartzeko garaia heldu da. Futbolaz ahazteko ondo etorriko zaizkit. San Martzialetan izatea espero dut. Hilaren 20an hasten gara Reallarekin entrenatzen eta urtero moduan, Holandara abiatuko gara aurrendenboraldia prestatzera. Ondoren, abuztu amaieran liga hasiko da. Aurten erronka polita daukagu UEFArekin. B


*"Hau guztia amaitu da eta orain opor txiki batzuk hartzeko garaia heldu da. Futbolaz ahazteko ondo etorriko zaizkit. San Martzialetan izatea espero dut"*

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
**%10EKO BEHERAPENA**  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63



Igartua-F. Moser taldeko txirrindulariak Oñatin izango dira domekan.

## Euskadiko Mendi Bizikleta Txapelketa Oñatin

**Igartua-F. Moser taldea lasterketan izango da**

**Domekan, Euskadiko txapelketari dagokion proba izango da Oñatin. Euskal Herriko taldeen artean, denboraldi honetan sortu berri den Biciprecisión Igartua-F. Moser taldea, punta puntako txirrindulariekin ari-tuko da lehian.**

Goizeko 9:30etan, junior mailako neskak eta 40 urte gorakoak arituko dira eta 11:30etan, 23 urte azpikoak eta elite mailakoak. 44 kilometrotako ibilbidea da eta lehen proban 150 lagun inguru espero dira eta bigarrenean 200.

Iñigo Igartua, ezaguna dugu, izan ere, askotan ikusi dugu Euskal Herri eta estatu mailako probetan lastertzen. Bergarakoak izerdi asko bota behar izan du baina badirudi honek guztiak merezi izan duela.

Mountain bike-a bultza-

tu eta zabaltzeko asmotan, Iñigo Igartua eta bere taldekideek Biciprecisión Igartua-F. Moser taldea aurkeztu dute aurten.

Bertako partaideek adierazi dutenez, helburu nagusienetarikoa bat lagun arteko giro bikaina lortzea da eta, era berean, estatu eta Euskal Herriko proba garrantzitsuenetan parte hartu: Euskal Herriko eta Espainiako openetan, Coronas Txapelketa, Euskadiko eta Espainiako txapelketak eta Valdemorillo eta Narancokoen moduko nazioarteko probetan, besteak beste.

### Zazpi txirrindulari taldean

Taldeak, zazpi txirrindulari osatzen dute: Iñigo Igartua, Aritz Kortabarria eta Arkaitz Ruiz de Loizaga bergarrek, Iñigo Roldan aretxabaletarrak, Harriet Ibarretxe durangarrak, Zigor

Urain arrasatearrak et Manolo Osuna Galdakaokoak.

Igartuaren taldeak, materiala, mediku kontrola eta gainontzeko beharren aurrean eskaintako aurrekontuaz gain, beste hainbat enpresaren laguntza jaso du.

Dagoeneko, taldekideek hainbat lasterketatan hartu dute parte eta sari garrantzitsuak lortu dituzte. Begirada azkar bat emanez, Igartua-F. Moser taldeak Euskadiko Openean taldeka egin zen txapelketa sari nagusia lortu zuela aipatu behar. Bestalde, banakako probetan egindako lana ere aipagarria da. Iñigo Igartuak, esaterako, Amurrión eta Pasaian jokaturako Euskadiko Openean 4. postua eskuratu zuen. Arkaitz eta Aritz 23 urte azpiko mailan dabilza eta orain arte sari nagusirik lortu ez arren, daramaten martxari eutsiz gero, zer esanik emango dute. B

## Aranzabal Lagunartearen deialdia

Anoetan egin behar dituzten eserleku berrietan, Aranzabal Lagunartearen tokia izango da. Bertan tokia izan nahi duenak, urteko 25.000 pezetako bazkide-kuota ordaindu beharko du. Izena emateko azken eguna hilaren 29a da. Interesatuak, deitu lehenbailehen, 943 76 70 11 telefonora. B

## San Martzial Saria Azpeitira

**Joan zen** astebukarran, San Martzial Saria korritu zen. Guztira 57 kilometro egin behar izan zituzten Ibarrairekaletik irten ziren 55 txirrindulariek. Domekan Euskadiko txapelketa korritu zenez, espero ziren baino txirrindulari gutxiago gerturatu ziren Bergarara. Dena dela, lasterketa polita izan zen eta beroak gogor jo bazuen ere, ez zen inolako arazorik izan. Hona hemen emaitzak: 1.º postuan, Aitor Aranalde azpeitiarra; bigarren, Eibarreko David Ferreiro eta, hirugarren, Bergarako Aitor Zenitagoia.

Bestalde, astelehenean amaitu zen Gipuzkoako Biran, Ander Agirre bergararrak lasterketa bikaina egin zuen, sailkapen orokorreko 10. postuan sailkatuz. Anderrentzat, lehenbizikoa eta baita Gipuzkoako Biran ere. B

## BKEko zuzendaritzaren azken txanpa

Urtero garai hauetan, BKEko zuzendaritzak eta bazkideek, bilera orokor bat egiten dute denboraldian gertatutakoak aztertu eta hurrengoari begira jartzeko asmoz. Joan zen ostiralekoaren ardura nagusia, zuzendaritzaren ordezkapena zehaztea izan zen. Oraindik ez da inor azaldu. Badirudi inork ez duela BKEko zuzendaritza hartu nahi.

Arduradunik agertuko ez balitz, kirol bakoitzean

dauden zuzendariak jarraituko lukete eta futbola talde ezberdinetako jokalarien gurasoen esku geratuko litzateke.

Bestalde, saskibaloia, eskubaloia, pilota eta futboleko egindako denboraldi ona azpimarratu zen. Aurrekontuen arloan, badirudi BKEk zuen zorra oso murriztu dela. Aurten, hamalau mila pezetako zorra bestrik ez da; beste urte batzuetakoan aldean txikia. B



BKEko zuzendaritza joan zen eguakitzean Kultur Etxean egin zen bileran.

## Saskibaloia kadete eta infantilak Kutxa Txapelketako finalean

Zapatuan eta domekan jokatutako Kutxa Saskibaloia Txapelketan, Bergarako hirurik talde aritu ziren; kadete mutilak, neskek eta infantil mutilak. Mutilen taldeak domekan Donostian jokatuko den finalerako sailkatu dira eta txapela lortzeko, Beasain eta Donostiaren kontrako partidua irabazi behar dituzte. Neskek (argazkian), Legazpiaren aurkako partidua besterik ez zuten irabazi. B



Neskek zapatu arratsaldeko partiduko atsedendian.

## Gimnasiako Ariznoa A taldea Espainiako Txapelketara

Joan zen domekan, gimnasia erritmikoko txapelketa jokatu zen Udal Pilotalekuan. Estatu eta Euskal Herriko talde hoberenetakoak izan ziren bertan, Ipurua, Kantabria, Beti Aurrera, Donostia besteak beste eta, izan ere, txapelketa honek, espainiakorako sailkatzeko balio zuen.

Begarako Ariznoa A eta B taldeek laugarren eta zazpigarren postua lortu zuten. Bestalde, A taldeko Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua lehengunean laugarren sailkatu arren, Euskadiko txapelketan bigarren postua lortua zutenenez, datorren astean Gijonera joango dira Espainiakoa jokatzerara. Txapelketa, astebukeraren jokatuko da baina gimnastek, astertean abiatuko beharko dira Gijoneruntz entrenamenduak bait daude. B

## Futbitoko neskek txapeldun Arrasaten



Begarako Lagunak Areto Futbol Elkarteko nesken taldeak Arrasateko Hiria I. Areto Futbol Txapelketa irabazi zuen, joan zen asteburuan In-do San Andres taldeari 9 eta 0 irabazi eta gero.

Mikel Fernandezek entrenatzen duen taldeak (argazkian) txapelketa bikaina jokatu zuen eta argi eta garbi laga zuten talde guztien artean onenak zirela.

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Erreformatzeko dagoen etxea salgai Barrenkalean da. 943 76 29 10.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

Pisua salgai San Antonion. Deitu 943 76 56 20 telefonora.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Pisua salgai Antzuolan. Amueblatua. 943 76 62 52.

Etxea salgai Aranerrekalean. 943 76 09 24.

**Errentan emateko**

Pisua alokairuan Alcoceber-en, udan. 943 76 12 14.

Pisua alokairuan Laredon, udan. 943 76 13 86 (gauetz).

Apartamentua Laredon, hondartzatik gertu. 943 79 52 80.

San Martin plaza. 943 76 21 77.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktatuak  
Deiak  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekalean. 150m<sup>2</sup>. 943 76 11 89.

A. Flemingean. 943 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokalean. 943 76 25 61.

Taberna bat salgai edo alokairuan Antzuolan. 943 76 60 16.

**Errentan emateko**

Lokala alokairuan. 943 76 35 09.

Estudioa Benidorm-en. 943 76 23 43.

Apartamentua Benidorm-en. Hondartzatik gertu-gertuan. 943 74 20 31.

**Errentan hartzeko**

Familia batek etxea hartuko luke alokairuan. 943 76 26 82.

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

Pisua edo logela alokatuko nuke uztailetik

aurrera. 943 74 44 44 (lanorduetan).

Pisua hartuko nuke. 943 76 32 57 (David)

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea salgai Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrekalean. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 2457.

Salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Bolu. 943 76 51 54.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

San Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

**Errentan emateko**

Garajea alokairuan Bolun. Deitu 943 76 55 26 telefonora.

Garajea alokairuan Poligonoan. Deitu 943 76 32 58 telefonora.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 943 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. Telefonoa: 943 76 05 17.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egintxo nituzke. 943 76 00 91.

Kliniko laguntzaileak gaisoak/helduak zainitzen ditu. 943 76 64 47.

Neskak orduka lan egintxo luke. Telefonoa: 939 47 25 84.

Uztailean zehar umeak zainduko nituzke. 943 76 07 50 (gauetz).

I  
G  
E  
L  
T  
S  
E  
R  
I  
T  
Z  
A

**BIAK, S.L.**

I  
G  
E  
L  
T  
S  
E  
R  
I  
T  
Z  
A

A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

**Super BM** 

**Super BM Supermerkatuak neska edo mutila behar du etxez-etxeko banaketa egiteko.**  
Edurene Fernandezekin jarri harremanetan.  
943 76 11 12.

**IBARGUREN PENTSUAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



**BOLINTXO ZURRADERO**

**Adi! Adi! Adi!**  
Saloura bidaiak bat zozketatuko dugu 98-6-30ean:  
Astebetekoa -  
2 lagunendako -  
3\*\*\* hotela - Pentsio OSCOA -  
Port Aventura-rako 2 sarrera.

Zurradero 2, behea. Tf. 943 76 01 26



Etxeako lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Neska eskeintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

**Eskaerak**

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zainitzeko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Antzuolan neska behar da uztailen eta abuztuaren etxeako lanak egin eta haurra zaintzeko. 943 76 63 41.

Neska euskalduna behar da etxeako lanak egin eta haurrak zainitzeko. 943 76 04 56 (gauzez).

**5. IRAKASKUNTZA**

**Eskaerak**

Ingeles klaseak. 943 76 53 88 (Rosa).

Ingeles klaseak uztailen (goizez). 943 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak. 943 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasleak

OHoko klaseak ematen ditut. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. (Nuria). 943 76 25 79.

Majisteritzako ikasleak OHOKO klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak udan. 943 76 32 93.

Ingenieritza ikasleak mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. 943 76 59 15 (Amaia).

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. Uztaila eta abuztua. 943 76 24 31.

Enpresaritza klaseak ematen dira. 943 76 05 43 (Miren).

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

**Eskaerak**

Ekonometriako klaseak hartuko nituzke. 943 76 26 82 (gauzez).

**6. AUTOAK/MOTOAK**

**Saldu**

Ford Sierra (SS-S) kotxea salgai. 943 76 18 28.

Peugeot 205 kotxe gorria salgai. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Opel Kadett (SS-AC) salgai. 943 76 16 31.

Golf GTI (SS-AH). 16 balbula. 943 76 33 26.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Remolkea salgai. 1,10x1x60 neurriak. Poliesterreko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

**Erosi**

Remolkea (2 m.ko kaja-duna) erosiko nuke. 943 73 19 60.

**7. ANIMALIAK**

**Oparitu**

Txakurkumeak oparitzen ditut (ama artzain txakurra). 943 76 12 93.

**8. DENETARIK**

**Saldu**

Orbea Sherpa bizikleta salgai. 943 76 52 76.

Pianoa. 943 76 51 54.

Depilatzeo makina elektrikoa salgai. 943 76 46 90.

**Erosi**

Diskoak, singleak eta LPak erosten ditut.. 943 52 65 77.

**Galdu**


Bergarako jaietan Euskadiko selekzioaren txandalaren goiko aldeko galdu nuen Simon Arrietan. 943 76 04 22.

Urrezko pultsera galdu da ekainaren 15etik 21era. 943 76 14 94.

**9. HARREMANAK**

**Kontaktua**

33 urtetik beherako mutil batekin harremanak izango nituzke. Idatzi 91 PK zenbakira, 20560 Oñati. Xabi. Erabateko zuhurtasuna.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**KALIBRAKETAKO 2 PRESTATZAILE**  
Deba Garaia. 9385/2

**FRESATZAILEA**  
Deba Garaia. 10245/3

**TORNULARIA**  
Deba Garaia. 10082/3

**2 GALDARAGILE-SOLDADORE**  
Urola erdia. 9225/1

**HARRERAGILEA**  
Gasteiz. 8002/3

**TXINERAKO ITZULTZAILEA**  
Gasteiz. 9795/3

**2 GALDARAGILE**  
Gasteiz. 10362/1

**GALDARAGINTZAKO TRAZATZAILEA**  
Tolosa. 9922/2

**4 GALDARAGILE**  
Urola erdia. 10364/2

**3 IGETSERO**  
Gasteiz. 10396/3

**2 ENKOFRATZAILE**  
Donostia. 10239/1

**4 ENKOFRATZAILE**  
Donostia. 10240/1

**TEKNIKARIA**  
Bilbo. 10308/1

**ARRISKUEN PREBENTZIOKO KONTSULTOREA**  
Bilbo. 10306/1

**OPTIKOA**  
Basauri. 10234/1

**ZENBAKIZKO KONTROLEKO TORNULARIA**  
Andoain. 9957/2

**Langai eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**TABERNA ZAHARRA**

**Jatetxea**

bazkari eta afariak

Telefonoa: 943 76 21 21  
ANGIOZAR

**NESKA EDO MUTILA BEHAR DA TABERNAN**

asteburuetan sukaldeko lanak egiteko

Tf. 943 76 71 19  
(Eguerdiko 12:00etatik aurrera deitu)

**Bergarako enpresa batek KOMERTZIALA behar du**

Bidali curriculumak: 245 posta kutxa 20570 BERGARA

**NESKA BEHAR DA JANTZIDENDAN lan egiteko**

Deitu lehenbailehen telefono honetara: Tf. 943 76 05 37

**AGIRREBEÑA**

oinetakoak arropa denda lenzeria

Urteaga 5 ☎ 943 76 18 29



Gozogintzan aintzindari.

Ekainaren 29tik uztailaren 20ra oporregatik itxita

# "Jai-Alai 98": Bergara musika elektronikoaren eta soinu berrien hiriburu asteburuan

Mundu mailako Dj onenatarikoak bilduko dira multimedia jaialdian

**Bergara musika elektronikoaren eta soinu berrien hiriburu bihurtuko da astebukaeran. Zapatuan, 16:00etatik aurrera, nazioarteko, estatuko eta Euskal Herriko Dj ospetsuenak bilduko dira Jam aretoan. Jaialdiak domekara arte iraungo du eta sarrerak 2.500 pezetatik (takilan 3.000 PTA) salduko dira.**

Techno eta house soinuak izango dira nagusi, baina musikak ez ezik, ikus-entzutekoen emanaldiak, Internet sarera konektatutako pantaila haundiak, performanceak, drags-ak, gogokak edota arropa, disko eta fanzineen salmenta postuak ere izango dute tokia. Musika elektronikoaren tendentzia berrienak, "Jai-Alai 98" izenburuarekin batailatua izan den Lehenengo Tekno Kulturaren Erakusaretoan.

Jam-eko areto nagusia eta goiko aretoa, diskoteka ondoko pabilioia eta kanpoaldean jarritako karpa haundi bat izango dira multimedia jaialdi erraldoi honen lau guneak.

## Techno eta house munduko artista onenak

Techno eta house munduko Dj onenak bilduko dira asteburuan Bergaran, 40 inguru guztira. Bestalde, estatuko puntu guztietatik eta Frantzia aldetik etorritako gazteak bilduko dira jaialdian. Esan behar da, estatuko hainbat tokitan antolatu dituztela autobusak Bergarara etortzeko.



Dj Orlandok ere jaialdian parte hartuko du asteburuan.

"Jai-Alai" zapatuan 16:00etan zabalduko da euskal *deejay* ospetsuenekin. Besteak beste, Arrasateko Steve eta Beñat, Gasteizko Txema, Donostiako Dj Perico eta Jam aretoan pintxatzen duten Dj Pablo eta Dj Orlando izango dira. Azken honek, zuzeneko emanaldi berezia eskainiko du, txalapartarekin nahastuko baititu soinu elektronikoak: Mikel Ostolaza "Osto" bergararrak lagunduko dio txalapartarekin.

Bestalde, 21:00etatik aurrera *Techno room* saioa hasiko da: aipatutako euskal Dj-ekin batera, Blake Baster, Stoned Baby edota Javi Union ere izan-

go dira. 23:30etan House hall saioa hasiko da eta bertan, Robert de la Gautier kanadarrak pintxatuko du beste batzuekin batera; Kataluniako Impactes Visuals taldearen ikus-entzutekoa ere eskainiko da. 24:00etan *Chill out* saioa hasiko da. Ordu berean, euskal *deejay*-en gunea minimal, techno eta house musikak pintxatuko dituzte bertako Dj-ek.

## Dance musika: rock berria

Fernando Etxabari Jam aretoko arduradua dioenez, "era honetako musikari bakailau musika deitzen dio jendeak, baina ez du uste hitz egokia denik. Technoa ez da atzo goizean sortutako musika estiloa, orain dela 15 bat urte, hemen "Rock

Radikal Vasco" delakoarekin genbiltzanean, nazioarte mailan entzuten zen eta musika hau pintxatzen duten Dj-ak benetako artista profesionalak dira".

Honen aritik, David Bowieek musika estilo honi buruz esandakoa gogoratu dugu: "Dance musika rock berria da" esan berri du. Badago, rock and rollaren izar berriak Dj-ak direla esan duenik ere. Horrela, bada, izugarriko rock konstelazioa ikusiko dugu asteburuan Bergarako zerruan. Antolatzaileek jaialdia aurrera ateratzeko laguntza eman dieten guztiei eskerrak eman nahi dizkie aldez aurretik. B

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

erakusketa

# Kirol Argazkien VIII. Lehiaketa

## Lehiaketara aurkeztutako argazki onenak ikusgai

**Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Kirol Argazkien VIII. Lehiaketako irabazleak jakitera eman dira. Sari banaketa gaur, eguakitza, egingo da Kultur Etxean eta, ondoren, argazki onekin erakusketa zabalduko da bertan.**

Zuri-beltzean, Javier P. Fernandezek irabazi du (25.000 PTA eta trofeoa); bigarren saria, Joaquin Garcientzat izan da (20.000 PTA eta trofeoa) eta hirugarrena, Idoia Usobiagarentzat (15.000 PTA eta trofeoa). Herriko onenaren saria, Benito Canterok (10.000 PTA eta trofeoa) eraman du.

Koloretako argazkien sailean, ostera, Juan J. Camacho izan da garaile; bi-

garren, Aitor Ajuria geratu da eta hirugarren, Joaquin Garcia. Hilario Azkar-gortarentzat izan da herriko onenaren saria. Koloretako argazkien sailean ere 25.000, 20.000 eta 15.000 PTA eta trofeo bana jasoko dute hiru lehenengoek, eta 10.000 PTA eta trofeoa herriko onenak.

Lehiaketara 25 argazkilari aurkeztu dira, horietatik 4 Bergarakoak eta gai-nontzekoak kanpokoak. Argazkilari bakoitzak lan bat baino gehiago aurkezteko aukera izan du eta erakusketan 40 argazki onenak erakutsiko dira.

Sari banaketa gaur, eguakitza, 20:00etan izango da Kultur Etxean. Lehiaketara aurkeztutako lan onenak Kultur Etxean izango dira ikusgai uzta-laren 5era arte. B



Javier P. Fernandezek argazki honek eraman du zuri-beltzeko lehen saria.

eskulanak



### Bedelkarrek antolatutako eskulan erakusketa zapatuan kalean

Bedelkarrek antolatutako eskulanen erakusketa izango da zapatuan honetan San Martin eta Simon Arrieta plazetan. Bertan, herriko hainbat taldetan lanean diharduten bergararren lanak ikusi ahal izango dira. Honako hauek dira erakusketan parte hartuko dutenak: Ana Orgazen Eskola, Mizpirualde, Jardun, Celestino Vicente, Aspace, Angiozarko Eskola, Izeder Eskola, Ion Murgizu, Simon Arrieta Zeramika Eskola, Bolu Eskola eta San Joxepe Jubilatuen Elkarteak. Erakusketa goizeko 11:00etatik ordu biak arte izango da zabalik eta Jarduneko trikitilariak eta Kobok dultzainero taldeak alaituko dute goiza.


Bestalde, Bedelkarrek antolatu duen zozketa zapatuan bertan egingo da San Martin plazan 13:30etan. Bedelkarrek, Donostian bi lagunentzako astebukaera bateko egonaldia (Maria Cristina hotelean, alga tratamenduak eta bainuak La Perlan, bi afari eta bazkari bat Donostiako jattetxe ospetsuetan) oparituko du bere bezeroen artean. B

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA  
ERROTULOAK**

Mota guzietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...



Kontxi Idigoras

Asteburuetan  
bertako babak eta sabieskia

SALBADOR 10 ELGETA Tf. 943 76 82 73

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Euskaraz hitz egiten duena. 2. Pitxer. Sindikatu abertzalea. 3. Atsegina. Boroa. Heu. 4. Interjekzioa. Helize itxurakoa. 5. Zulogunea. Herri hizkeran, zer. Lehenengoa. 6. Bokala. Aurrizki latinoa. Sarritan. 7. Barre isila. 8. Har ezan! Irristatu, labandu. 9. Europako estatua. Kanpo, landa. 10. Portua. Araknido mota.

**Goitik behera**

1. Etxean zaintzen dituztenak. 2. Ihes arazi, joanarazi. Edari alkoholduna. 3. Infin., saldu. Bizkaieraz, gehiegi. 501. 4. Narrasti. 5. Arabako herria. Euskal aurrizkia. 6. Gauero egin ohi dugu. Röntgen. Lerro. 7. Kontsonantea. Aurpegiko ileak. 8. Zuloaren erdian. Kristala. Bokala. 9. Gura. Zeta-tximeletaren ar. 10. laioa. Ibilgailu.

**Soluzioa**

Ezker eskuma  
1. Euskalduna. 2. Txarro. LAB.  
2. Kaloa. B. H. 4. Et. Kiribil.  
3. Luma. Ze. A. 6. A. Ad. Maiz.  
7. Hiltzarra. 8. Noi Lerratu.  
9. Andorra. At.  
10. Kalia. Akaro.  
Goitik behera  
1. Etxezinak. 2. Uxatu. fona.  
2. Sot. Lar. D. 4. Krokodiloa.  
3. Aita. Ber. 6. Lo. R. Marra.  
7. D. Bizarrak. 8. U. Beira. A.  
9. Maki. Zetar. 10. Abila. Auro.

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar

**Zein urtetan eman zion Alfontso X.a Jakintsuak hiri-gutuna Bergarari?**

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Belatz** kantinan izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Mertxe Martinezentzat** izan da: Ixaun jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Mertxeri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **San Pedro kalea**. Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-C**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**BELATZ**

Kantina

Gorla mendatea  
Tf. 943 58 50 23

**"Nagixak" koadrilako aurpegi ezagunenetakoak domekan 41 urte bete zituen. Katea San Juango enpresan lanean ari da, furgonetarekin aurrera eta atzera. Juergazale amorratua, 1,94 m. neurtzen du eta 115 Kg.ko pisua dauka.**

**Zenbat kilometro egunero?**

100 bat.

**Laneko gauzarik onena?**

Gauza onik ez dago...

**Eta txarrena?**

Pisuarekin lan egin behar izatea.

**Asteke egun bat?**

Zapatua.

**Juergazalea zara?**

Betidanik.

**Gustoko jai bat?**

San Martzial eguna beharbada.

**Jaietan ligatzeko sekretu bat?**

Ez dakit, ez dago juergan jarraitzen gaituen emakumerik eta...

**Egunero egiten duzu txikiteoan?**

Orain lehen baino askoz suabeago.

**Sukaldari ona zara?**

Defenditzen naiz.

**Ondo gertatzen duzun plater bat?**

Bildotsa labean, ez dauka sekreturik.

**Janari bat?**

Denetik jaten dut baina postreak dira nire debilidadadea.

**Edari bat?**

Patxarana, dudarik gabe.

**Etxeko lanetan laguntzen duzu?**

Batzuetan.

**Kirola ikusi ala praktikatu?**

Egitea nahiago. Igeriketa gustatzen zait.

**Raftingean ere ibilita zaude.**

Bai, igual oporretan probatuko dugu berriz.

## Luis Markiegi

**Udan, hondartza ala piszinak?**

Hondartza, olatuetan jolastea gozada bat da.

**Gustoko hondartza bat?**

Zarautzera asko joaten gara.

**Keizpean ala eguzkitan?**

Keizpean hobe...

**Tangarik jantziko zenuke?**

Ez dago niretako modukorik.

**Udan, mendia ala hondartza?**

Hondartza, mendia oso sufritua da.

**Bertute eta defekturik?**

Bihotz handikoa naizela; defektuak asko, tartean zakarra naizela.

**Emakume batengan zertan fijatzen zara lehenbizi?**

Izaeran.

**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**

Politika gaiak, hemengo kontuak.

**Horoskopoa irakurtzen duzu?**

Ez daukat ohiturarik.

**Zerk jartzen zaitu sutan?**

Mayor Oreja edo Iturgaitz telebistañ ikus-teak.

**Zer egingo duzu oporretan?**

Kubara joan nahi nuke. Juergarako aukera dago eta bertako emakumeak oso alaiak dira. B



**LAGUN ARO**

ASEGURUAK



**AGENTEA-DELEGATUA**

**Iraegi Aseguruak**

Ramon Maria Lili 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxes: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenerik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

**FRANTSES  
IRAKASKUNTZA**

**Ikastaro  
trinkoak  
uztailaren  
6tik 24ra**

Izena emateko epea:  
uztailaren 3ra arte.

**Informazio gehiago:**

Mizpildi 3, 1-ezkerra. BERGARA.

Tf. 943 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00





## Artekaleko Beti-Ondo taldea, 1935

Ziur asko, mundiala dela eta, bat baino gehiago futbolarekin zeharo aspertuta egongo da dagoeneko. Frantzia diren izarrak alde batera lagata, oraingoan herriko txapelketa bateko argazkia ekarri dugu orrialde honetara. Argazkia 1935. urtekoa da eta bertan Artekaleko Beti-Ondo taldea ikusi dezakezue. Jesus Larrañagak eman digun informazioaren arabera, Don Juan Gabilondo abadeak eta dominikoez antolatutako futbol txapelketan Barrenkale, Artekale, Bidekurutzeta, Mizpildi eta Labegarietako taldeak izan ziren lehian. Partiduak Seminarioan jo-

katu ziren eta Beti-Ondo taldeak irabazi zuen txapelketa. Sari gisa, argazkian dituzten kamisetak (berdeak eta beltzak zirenak) eskuratu zituzten. Hauek dira argazkian agertzen direnak (orduak 12-14 urterekin):

**Zutik:** Bitorio Bilbao, Roman Mujika, Luis Irizar, Ramon Sasiain, Cecilio Moreno, Jesus Murua, Victoriano Larrañaga eta Higinio Agirre.

**Makurtuta:** Pedro Soria, Jesus Larrañaga eta Liborio Mujika.

*Argazkia: Jesus Larrañaga*

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



**zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# EZ DAGO KONPARAZIORIK



**OMU**  
KERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Otalora 1, behea • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE

**ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK**

# eskoriatzako jaiak



# LA POLLA

# DOCTOR DESEO

Hay cuentos aún por inventar



doctor deseo



# KAOS ETILIKO

# ZEI



# ZAPATUA EKAINAK 27

LUIS EZEIZA IKASTETXEKO PATIOAN

22:30ETAN

1.500 aurretik eta 1.800 takilan

Ohizko lekuetan

LA POLLA EN DIRECTO



98 06 2

# JAI ALAI

# da Tecno Event

01	Techno room	& House hall	02	Blake Baster
	Space dj's	& Bandulu,		Robert de la
	Gautier,	Teen Marcianas,		Stoned Baby, Ho
	Sustance,	Electric groove,		dj's: V. Mafia,
	Javi Union,	Txi-txi, Ima,		Pablo, Imanol,
	03	Orlando	Chill out	Jose Padilla, Javier Mar
	Mauri	Salon Tecno & Club Culture		
	05	Euskal Techno Area	Performances	
	07	Light-jokeys		



Bergara. Infoline 943 76 35 81  
907 54 33 74 Internet www.salajam.es  
salajam@ctv.es